

Pobrezia-subsidio kopurua doble eta gehiago igo da Hernanin, azken 2 urteetan

■ Orain 2 urte 73 pertsonak jasotzen zuten, eta orain 177-k ■ Ongintzako asistentak dienez, eskariak oraindik ere igo egingo dira.

ONGINTZAKO gizarte zerbitzuetako sailak zenbait datu eman ditu Hernanin eta Gipuzkoan pobrezia-subsidioa (IMI) jasotzen dutenei buruz. Subsidioa Foru Aldundiak ematen du eta ingresorik ez edo oso bajuak dituztenek jasotzen dute. Subsidioa 400 euro bueltan izaten da hileko, (51.000 pta), baina, aldatu egiten da egoeraren arabera.

Hernaniko errealitateari dagokionez, bi datu:

1) bikoiztu egin da subsidioa jasotzen dutenen kopurua: 73-tik 177-ra. Eta aurten, beste 35 eskari bota dira atzera.

2) Gipuzkoan 1.000 pertsonako 5ek jasotzen dute, eta Hernanin ia dobleak: 1.000-tik 9-k. Asistentearen ustez, eskariak oraindik ere gehiago igoko dira.

Alkiler laguntzak

Ingreso oso bajuak eta alkilerrean bizi direnek ere izan le-

zakete laguntza errentaren zati bat ordaintzeko. Hernanin laguntza eskari horiek ere asko igo dira. Asistentearen ustez, horren arrazoietako bat da inguruko herrietako jendeak ere Hernanin alokatzen duela etxea. "Astigarragan edo Urnietan gutxiago alkilatzen da, eta jendea Hernanira dator. Badakigu zenbait herritan alkilerregatik banatu beharreko dirua bueltatu egin dutela eskaririk izan ez dutelako". □

MAHAI TENISA



Txema Armentia jokatzen, larunbateko partiduan.

Hernaniko ekipoek irabazi egin dituzte asteburuko partiduak

HERNANIKO taldeek emaitza onak lortu dituzte asteburuko partidu guztietan. Liga Autonomikoan, Hernanik Leka Enearen kontra jokatu zuen kiroldegian: galtzen hasi, enpatatu eta Zuhaitz Irastortzak ekarri zuen hernaniarren garainpena azkeneko partiduan, bost jokotara jokatuta (16-14 irabazi zuen azkenekoa). Probintziako Ligan, Luberrikoek 4-3 irabazi zieten irundarrei. Eskolartekoan, Txirrita ikastolak irabazi egin zion Laskoraini. Aldiz, At. San Sebastianeko hernaniarrek galdu egin zuten. □

BOLA -Erregularitatea-

Joxe Ugalde 3garren

JOXE Ugalde Elur-Txoriko bolariak hirugarren egin zuen Urnietan, Erregularitate txapelketako aurreneko tiraldian. Lehen postuan Jokin Etxebeste gelditu zen 48 brila botata eta Ugalde hernaniarrek 3 gutxiago bota zituen, 45, joan den igandeko tiraldian.

Hernaniarrek goian

Joxe Ugaldek ez ezik, gainerako hernaniarrek ere lan ona egin zuten txapelketako lehen egunean. Jose Mari Usabiagak 44 brila bota eta zortzigarren postuan gelditu zen, aurreneko postutik 4 briletara bakarrik. Jose Mari Santos eta Migel Burugainek, berriz, 42na brila bota zituzten.

Denera 65 bolarik tira zuten. Ekipoka begiratuta, ondorena Elur-Txori ibili zen. □

PLENOA GAUR

Bi kale berri Hernanin: Bidebieta eta Argarain kalea

■ Plenoan hitz egingo da proposamena, 19:00etan.

GAURKO plenoan bi kale berri izen jarri eztaba-datuko da. Proposamena da Puig-eko kurtidora zegoneko kale berriari *Bidebieta kalea* izena jartzea eta Schroeder

enpresa zengoenekoari *Argarain kalea* izena jartzea. Horretaz gain, zazpi puntu tratatuko dituzte eta 2002-ko udal enplegu plana eztaba-datuko dute lehenengo. □

Erabilitako olioak gaur bilduko dute ferian, Urbieta kalean

ERABILITAKO olioak hamabostean behin biltzen da, eta gaur tokatzen da. 16:00etatik 19:30ak arte. Aurreko aldian, 150 pertsonak eraman zuten olioak eta 200 litro bildu ziren.



Zubiria etxea. Patatera izenez ere ezagutzen da.

Zubiria villan 12 apartamentu

■ Gobernu batzordeak atzo onartu zuen etxea botzateko baimena.

GOBERNU batzordeak atzo onartu zuen Zubiria villa botzateko baimena. Hor, gela bateko eta biko 12 apartamen-

tu dijoaz, iniziatiba pribatuaren eskutik. Hala ere, oraindik tramitazioa lehenengo fasetan dijoa. □

Hernaniko Kronika

Zure publizitatea hemen
943 330 899

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Egunero menuak.
Afariak enkarguz.
Ostiraletan mus txapelketa.
Florida 54
Tel: 943 33 03 97



GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

- ⊙ 1. partidua: LARREA - ETXEBERRIA II / ITURRALDE - ZESTAU III
- ⊙ 2. partidua: EZKURRA - ETXEBERRIA III / ZEBERIO II - LIZASO
- ⊙ 3. partidua: URRETABIZKAIA I - IRIARTE / MATXIN - ETXABE
- ⊙ 4. partidua: LEZEA - URRETABIZKAIA II / AGIRRESAROBÉ - AUZMENDI



OTSAILEAN

ATE eskaintza. Oraintxe duzu
ATEAK berritzeko aukera.

Preziorik onenak *Arkan*.

Eskaera hilabete honetan eginez
gero %7ko deskontua.

ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-



JUBILATU ETXEAN JUNTA ALDAKETA



Jubilatu Etxeko azken bi urteetako juntako kideak. Datorren asteartean aldatuko da.

Lehendakari eta junta berria osatzeko izena emateko epea zabalik dago

■ Batzarrean bertan ere eman liteke izena ■ Otsailaren bostean da.

JUBILATU Egoitzan junta aldatzeko urtea da aurtengoa. Bi urtean behin taldea berritzen da, eta aurtengoa da.

Lehendakari izateko norbaitek izena eman behar du, eta gero bere taldea osatu. Interesatuak oraingo juntarekin ha-

rremanetan jarri edo batzarrean bertan aurkeztu lezakete beren burua. Batzarra otsailaren 5ean izango da, 16:00etan. □


ESKOLARTEKO KIROLA - EMAITZAK



Langile eta Aldapetako jokalariek saskibaloia partidua hasteko pronto.

SASKIBALOA	TALDEAK	SASKIBALOA	TALDEAK	FUTBOL SALA	TALDEAK
Infantil mutilak	Langile 20-Aldapeta 70	Alehin mutilak	Errazo 99-Langile B 94	Benjaminak	Elizatar 0-Langile 2
Infantil mutilak	La Salle 40-Inmaculada 28	Alehin mutilak	Herrera 0-Langile A 20	Benjaminak	Langile B 1-Urumea 1
Alehin mutilak	Inmaculada 42-Olaeta 8	Alehin neskek	Ortze 28-Urumea 99	Benjaminak	Inmaculada 1-Elizatar 9
Alehin neskek	Elizatar 11-La Salle A 20	Alehin neskek	Azotar 14-Langile 16		

HITZ BITAN



AEKko kideak eta sagardogilea pronto AEK txochasteko.

✓ AEK

Atzo aurkeztu zuten 'AEK txotx' Larregainen. AEKk datorren larunbatean egingo du 'AEK Txotx' Hernanin. Aukezpena atzo egin zuten Larregain sagardotegian. Joxe Leon Otaño AEKko koordinatzaile nagusiak festaren arrakasta aipatu zuen: aurtengoa 1.700 lagun datoz afaletara. Festak jasotzen dituen laguntzak ere azpimarratu zituen. Laguntzaile nagusiak dira Hernani, Astigarraga eta Urnieta 20 sagardogile eta Artisauek elkartea. Oihana Romero antolatzaileak egitaraua azaldu zuen: artisauek azoka; bakailu lehiaketa; afaria; eta dantzaldia eta DJak. Azken hitzak Joxe Lasarte Larregain sagardotegikoak egin zituen: "AEKren proposamena pozik hartu genuen, sagardoa eta euskara elkarrekin dihoaz-eta. Aurtengoa sagar uzta ona izan da eta sagardoa ere bai, ea euskara-uzta ona ere izaten den".

✓ 3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa gaur. Hamabostero bezala, 3/4 plataformak kontzentrazioa egingo du kartzela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten preso askatasuna eskatzeko. Hernaniko bost preso daude egoera horretan. Kontzentrazioa 19:00etan, Plaza Berrian.

✓ OSASUNARI BURUZKO ZIKLOA

Hitzaldia gaur. 'Buruari bizitza ona emateko baldintzak'. Gaur, arratsaldeko 19:00etan Biterin.

✓ MENDIRIZ MENDI

Eskiatzera asteburuan. Mendiriz Mendik asteburu honetan eskiatzera joateko plana egin du. Fondo eta alpino egingo dituzte, Somport-Candanchun. Izena emateko azken eguna gaur da. 20:00etatik 21:00etara, Iturregi plaza, z/g.

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40: Mikel Peruarenarekin Batasunako bake proposamenaz. 12:00: Mikel Picazarekin osasunari buruzko hitzaldietaz 12:20: AEK txotx.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak: 943 550093
 ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
 ☎ DYA: 943 464622
 ☎ Autobusak: 943 556662
 ☎ Anbulatorioa: 943 557750
 ☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
 ☎ Gaez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933

HERIOTZAK

Manuela Iraola Ostolaza
 Asteartean hil zen 93 urte zituela.

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko jatetxe batean, ontzi-garbitzeko pertsona bat behar dugu, larunbat eta igandetarako. Kotxea, motoa edo garraio moduren bat beharrezkoa. Interesatuak deitu 943 55 02 40.

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA

943 55 29 38
OIALUME ZAR

brintza

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbietan 15
 Tel. 943 33 12 67
 Faxa.: 943 33 08 92
 20.120 HERNANI

LAN AHOLKULARITZA
 AHOLKULARITZA FISKALA
 ASEGURUAK, INBERTSIOAK

Allianz

ASEGURUAK
 Agustin Ezponda
 AGENTZIA
 Tel.: 943 557 326
 656 735 109

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK
 Larramendi 15 - Tel: 943 550046
 HERNANI

GARAYAR AUTOBUSAK

AUTOBUS ZERBITZUA
LINEA ERREGULARRAK
 Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
 Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-
 Urnieta-Andoain
ZERBITZU DISKREZIONALAK
(ESKOLARRAK)

Jauregi bailara 17 - Tel: 943 556 658 - 943 556 662
 Faxa 943 331 208 - e-maila: mgarayar@facilnet.es
 20120 HERNANI (Gipuzkoa)